

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Behar ditugun hornitzaileak nagusiki baserriko nekazari txikiak, izango dira. Haien produktuak behar ditugu, janaria etxekoa izateko. Gainera arrantzale eta abeltzainekin harremanetan jarriko gara baserrietatik eskuratu ezin ditugun produktuak, haien bidez lortzeko. Era berean, haien produktuak erabiltzearen ondorioz, nekazaritzako langileentzat ere positiboa izango da, izan ere, jende gehiagok ezagutuko eta erosiko ditu bertan ekoiztutako produktuak. Hau da, publizitatea edukitzeko aukera izango dute. Bazkideari dagokionez, hirugarren mailako adinekoen asoziazio batekin hitz egingo dugu, hain zuzen, "edad y vida". Haien helburua, adinekoek bakardadea ez sentiaraztea da, horretarako, 100.000 euro emango dizkigute, gure enpresa aurrera eramateko. Diru horrekin produktuen ekoizketa hasiko da. Horrez gain, banku bati mailegu bat eskatuko diogu, beste prozesu guztia egin ahal izateko, diru gehiago behar dugulako. Zehazki, 50.000.

Glovo (lehiakidea) izeneko enpresarekin hitz egitea erabaki dugu, haiek gure lan egiteko modu berdina eduki dezaketeelako eta hori sahiestea da gure helburu nagusia. Beraz, haiekin harremanetan jarri gara gure artean ados jarri eta bakoitzak lan egiteko modu ezberdina edukitzeko. Hasteko, gure enpresak globok ez bezala (haiek motorrak eta bizikleten bidez egiten dituzte eskaerak) , furgoneta bidez egingo du banaketa etxez etxe, izan ere, Sendovin izeneko enpresarekin harremanetan jarri gara. Jarraitzeko, haiengandik bereizten gaituen beste alderdia janaria nondik lortuko dugun izango da. Enpresa hauek jatetxe edo janari lasterreko jatetxeekin lan egiten dute eta beraien langileak jatetxeetara joaten dira janariaren bila. Aldiz, guk, adineko jendeak egindako errezeta hoberenak eta platerak sukaldatuko dizkiogu bezeroen beharrak asetzeko.

Guretzako benetan garrantzitsua da horrelako pertsonekin lan egitea, gure helburu guztiak betetzen laguntzen digutelako. Hau da, janaria ematen digun hornitzaileak gure prozesua aurrera eramaten laguntzen digu. Gainera, aukeratutako bazkideak gure enpresa sortzen laguntzen digu, diru kopuru horrekin erraztasun gehiago ditugulako gauzak hobeto egiten.